

ZER

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

254n. zenbakia
iraila 2000



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



GERNIKA

**BATZAR-ETXEA
ZIÑA EGITEKO TOKIA**

E U S K E R A Z A L E A K

2000-2001 IKASTURTEA

OGEI TA AMAIRUGARRENA
BIZKAIERAZ
IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN

Orduak: GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

Ordaña: 20.000 PEZETA

Izena emoteko-tokia: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2 - URRUTIZKIÑA 423 53 22 - BILBAO

Asierea: URRILLAREN 16'EAN

33.² CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES Y CONVERSACION

Dias: LUNES, MI RCOLES Y VIERNES, O MARTES Y JUEVES

Horas: MAÑANA, TARDE Y NOCHE

Curso completo: 20.000 PESETAS

Inscripciones: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2 - TELEFONO 423 53 22 - BILBAO

Comienzo: 16 DE OCTU B R E

LAGUNTZAILEA

COLABORA



BEGONA (II): ELEIZEA

Gauza ziurra da gaurko eleiza onen aurretik beste eleiza bat edo batzuk izan zirala Begoña'n, baiña gaur arte ez daukagu eleiza orrean ezelako astarrenik. Bear bada gaurkoaren ormetan izango dira aurrekoaren arriak edo azpian geratu leiteke ormarean bat-edo.

1.503n. urtean eginda dagoan agiri baten agertzen jaku eleiza aren ondasunen zenbaketa edo inbentarioa: inguruan eleizpea eukan zurezko estalkiagaz, ate bi, gitxienez, sabai bakarrareti azpiko erri-lekura sartzeko eta arrizko eleiz-toki bat eta kantu eukazan eta aurrean iruditegia, Andra Maria'ren irudia eta Ama onen edesti osoa agertzen ebal.

Tamalgarria da iruditegi ori galdu izana alboan dan arrizko eleizatxua, bear ba'da lenengo eleiza erromanikoa izango zan, beste leku batzutan lez. XVII gizaldira arte iruditegi orren zatiak ormetan ikusten ziran. Ara zelan zeaztuten dauzan Begoña'ko parroko izan zan Ugaz Maixuak: Amalau lauki margotu Andra Maria'ren bizitza agertzeko, "Orra Or gizona" irudi bat, lau ebanjelariak oleoz margotuta eta Flandes'ko tankerakoak. Guztiak dira altara nagusitik kendu zan lengo iruditegikoak".

Ez da arritzekoa XV gizaldian Begoña'n flamenkoen tankerako laukiak izatea. Gizaldi orretan Gaztelan eta emen zabal ebillan tankera ori. Gaiñera Bilbao'k artu-emon asko eukan salerosketan Brujas'egaz.

Margazkiak asko diran ezkeru, iruditegi ori aundia zala esan bear da: Goian Kalbarioa izango eban, erdian Andra Maria'ren irudi au, becan "Orra or gizona" ta ebanjelariak. Ori dana galdu zan! Zer emongo ete geunke gaur be eskuartean eukiteagaitik! Zarrak zirala-ta bota ebazan baiña ortik ulertu al izango gendun oraingoaren

aurreko eleiza ori ez zala baseleiza txiki bat.

XV eta XVI gizaldietan Bizkaia'n eleizgintzarako zaletasun aundia sortu zan, eleizak aundiagotu egiten ziran, beste batzuk bota eta barriak egin. Or galdu zan Bizkai'ko erromaniku osoa eta jokera ori eldu jakun

Begoña'ra be. XVI gizaldiaren asieran asi ziran eleiza barria, gaur daukaguna, egiten: Juana eregiñeak 1.511n. urtean, bagillaren 6n. egunean auxe diño: "Oinarrriak eta erri-lekuaren zati on bat eginda dagozela".

Erritarrak emoten eban diruagaz egiten zan eleizea eta zaintzaille ziran jauntxuak eragozpenak ipiñi baiño ez eban egiten. Begoña txikia zan eta emoitziak geienak Bilbao'koak izango ziran, "amarretatik zortzi" diño Lariz'ek. Dirua bai eta baita etxegintzako gaiak be ba-ziran emoitzi: Lezama'ko Martin Ruiz'ek Begoña'ko Argileta'n eukazan arrobotako arria emon eban, bear zan beste".

Beste olako emoitzi batzuk be izan ziran eta euren emoilleen ikurdiak age-buruetan agertzen dira.

XVI gizaldian amaitu ziran erdiko erri-lekua, ezkerrekoa eta torrea. 1.603n. urtean ipiñi eban irudia agiritegiaren erdian. Iruditegia aundikeribakoa zan Donosti'ko Aldundian dagoan ezkontza baten margazkian ikusi daiken lez. 1.640n. urtean iruditegi barria egiteko eskatu eutsoen Pedro de la Torre'ri: zati bikoa izango zan, bata korintotarren tankerakoa eta bestea jonio'tarren eta Konrinto'tarren artekoa batera. Ormea apurtu zan Irudiaren tokia egiteko. Bost urtean egin eban lan ori Foru'ko Alloitz'tar Antonio lagun ebal.

OLAZAR'tar Martin'ek

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (3.000 pezeta) kontu onetan:
EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!



Ebagoi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 3.000 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

GOGARTE ETXEA


- Gogo-iñarkunak - Bakart-egunak - Atsedena toki ederra



Loiola'n bertan dago ta onen "oroitzak" jarraian doaz lerro batzutan azalduta. "Gogarte Etxea"ren alboan, oso ur-samar, Garate'tar Franzisko Anai Zoriondunaren jaiotetxea aurkitzen da. Azken au, Garate'tar Franzisko'ren denporan lez itzi dabe, ikusteko zelako baserri txiroa zan jakiteko.

Gogarte Etxean urtero ta urte osoan zear, "Gogo Iñarkunak" egiten dira. Urte osorako argitaratzen dabezan egitarauak begiratu ezkerreko ikusten doguz egiten diran "Gogo Iñarkun" guztiak eta baita "Bakart-egunak".

Batzuk "aste osorakoak", beste batzuk egun gitxitara-koak, Aste Santuan egiten diranak esaterako, iru egune-koak bakarrik diralako. Batzuk gizonentzat, besteak abadeentzat eta baita lekai- ta bardin senar-emazteentzat. Ba dagoz gazteentzat eta baita Josu Lagundikoentzat.



Basotik zear, gorantza doan ibilbide ederra.

Gogo Iñarkun orreixetan Zuzendaria beti edo ia beti Josu Lagundikoen bat izaten da; iñoiz, batez ere udakoe- nean eta gitxitan ba da be, beste lekaidigoko lekaide baten bat etorria izan da.

"Gogarte Etxea"ren arduradunak lekai- meak dira ta euren izena "Kristo Erregearen Menpekoak" da, (erderaz "Esclavas de Cristo Rey" Oneik, etxea guztiz txukunduta eukiten dabe ta emoten daben janaria oba eziñez gertautu egoten da; ikusten da biotz-biotzez egiña dala.

Orrez gain, an emoten dogun eguneroko saria oso mer- kea da; ez dakigu zelan konpontzen diran Iekai- meek euren bizitza aurrerantza eroateko. Baiña eurak aurrera doaz eta gaiñera beti irriparez aurkitzen dira; ori Jaun- goikoaren alatz bat dala esan bear da.

Etxe ori Josu Lagundiko ikasleentzat egiña izan zan, baiña onelako ikasleak oso gitxi dagozelako aldatu eben bere zeregiña ta, orregaitik, "GOGARTE ETXEA" sortua izan zan.

Gogarte Etxea'tik ur-samar beste etxe bat dago lekai- me berberen beste talde batek daroena ta bertan neskato ta emakumeentzat gogo iñarkunak izaten dira. Azken etxe au lekai- me orreixen sort-etxea dala esan lei. Eta antxiña- ko baten, urrin barik, OTELA izandakoa. Otel orreixetan, Josu Lagundiko etxean sartu aurretik, iru-lau egun emon bear izan ebazan ARRUPE'tar PEDRO, gero Lagundi orren BURU izango zanak, entzunda daukagunez.

Gogarte Etxea ori etxe bizitza batzuk daukoz. Beal- dean sarrera dago ta ezker aldean ikertaldi ederra izketan emoteko, baiña atorde batzukaz, talde batekoak bestekoai gogarazorik egin barik.

Gero, barruan barne-bide eder bat. Onen ezker aldean etxe onen Zuzendaria dan Josu Lagundiko baten gela; jarraian lekai- me-idazkariaren gela ta an dagoan lekai- me azkarra benetan, berak bakarrik kontu guztiak daroazena ta baita nortzuk dagozan talde bakoitzan, gero zerrenda baten jarrita ta egun bakoitzan izango diran gertakizunak.

Ondoren beste ikertaldi txikitxuagoa, banaka edo talde txikitxuetan joaten diranentzat, batez ere lekai- me berezi batzuek gura izaten danean.

Barne-bide orretan, eskumarantza iroldegi bi aurkitzen dira; andraskoentzat eta gizonezkoentzat. Baita igon-gaillua gorengo etxe mailletara igoteko, zurubiak erabili barik.

Eta barne bidea artezean jarraitzean etxarte batera elduten da, Iñaki Deunaren etxe aundira joateko.

Toki orretara eldu baiño lentxuago, barne-bideak ezke- rrara emoten dau ta andik iru jantokitara sartzeko atek dagoz. Onein azkenean eskaratz ederra janariak ondo ger- tatzeko.



Ikusgarrizko loradunak bazter txiki baten.

Bigarren etxe-oiñean otoiz-leku bikaiña ta berezia. Gogo iñarkunak emoten dauzan Zuzendariaren gela; baita gogo iñarkunak egiteko diardunen gela ederra, onelan entzule guztiak nasai egon daitezana. Ba dago beste gela txikiago bat talde txikiagorentzat. Gero Gogarte-Etxera joaten diranen gelak; batzuk oe bikoak eta beste batzuk oe bakarrekoak.

Beste irugarren etxe-oiña antzekoa da eta azkenez, gorago beste bat gasteentzat guztiz ondo gertautu, euren otoi-toki txukunaz. Alan da guztiz be batzuetan gazte asko ikusten dira lurrian jesarrita euren otoi-tzak edo oldozmenak erabilten.

Azken etxe-oin onetan igaro-toki eder bat ia-ia Azkoi-tia'raiño ikusegi ederraz. Igaro-toki au berezia da euriak izaten diranerako, onelan ba dagolako nun egurazte apur bat egin.

Onez gain, Gogarte Etxearen ostean baratz ederra dago ta jarraian, antziña baten landatuta, askotariko zugatz ederrakaz ornituta, mendian-gora oian txiki baten antza emonaz. Gaur egun be beste zugatz batzuk landatu dabez eta onelan baratz ori osotuta dago ta, orrelan, geure begien aurrean ikuspegi bikaiña benetan agertzen da.

Baratz orretan landa ederrak dagoz eta euren artean ibilbide zabalak jarleku egokiakaz beteta, atsedena artu eta buruan daukaguzan oldozmenak nasai erabilli ta ausnartuteko.

Eta ori gitxi ez izan arren baster berezi txiki baten askotariko loradunak jarri dabez geure poztasunerako.



Berebillak eukiteko toki egokia.

Eta onein aurreko landan "Sequoia gigantea" deritxon landarea dago jarrita, itxura politekoa benetan eta ondo zainduta ba dabe, barreneko abar bat bera be kendu barik, urte gitxi barru zugatz dotore baten itxurea artuko dau.

Beste baster txiki baten larrosak bakar-bakarrik landatuak izan dira ta oneik be poztasunerako dirala erakusten dautse, ara begiratzen daben guztiak.

Esandako guztia poztasunik aundienaz ikusten dogu. Bakarrik uts bat dago geure ustez eta ez da arritzekoa, gizonak, geure lan guztietan, ia-ia beti utsak egiten doguzelako.

Ikusten dogun utsa auxe da: Garate'tar Franzisko Anai Zoriondunen basetxe ostean "Palmera" deritxon landara bat ezarri dabela. Landara orri ez deritxagu egoki leku orretarako; beste tokiren baten ondo egongo da, baiña toki orretan ez; ez eta ez.

Konturatzen ba gara, baserri orren izena "—ERREKARTE—" da. Orrek esan gura dau, gaur egun ikusten ez ba'doguz be, aldi baten "erreka" edo "erreka-txu" batzuk egongo zirala ta orregaitik, orrelako toki



Basoa, oian txiki baten bihurtuta.

Aurrez-aurre:

- ezkerrean, loradun txiki bat
- ezkuman, "Sequia gigantea" zugatz ederra.

baten, egoki datorkion landarea "LEXARRA", (Gipuzkoan "LIZARRA" izenaz ezagutzen dana) izango litzatekio. Gaiñera "LEXARRA" k gerizpe argitsu ta ozkirritsua emoten dau bere azpian nasai egoteko.

Ikusten dogunez, "GOGARTE ETXEA" ez da bakar-bakarrik "Gogo Iñarkunak" egiteko, atsedentoki berezia be ba da-ta. Onexegaitik, gogo zabalaz ara joan ezker, gauza bi orreik egin leiz eta, gero, andik urtekeran nasaitasun osoa aurkitzen da.

Ezagutzen ez dabenak eta ikusteko, aldi baten joan gura ba dau, urrutizkinez (943-81 05 08'ra) deitu baiño ez dauko ta balduko dautsoez urteroko zeregin guztiak.

Eta joatekotan egun zoragarriak izan daitezala, biotz-biotzez opa dautsagu.

ZENARRUTZA ZIORTZA (III) KONPOSTELA'RA BIDEAN

ERROMESEN JORABIDEAK

Zortzigarren gizaldi-inguruan asita, garrantzi aundiko bidea izan zan Europa osoan Santiago'ren bidea. Erdi-aro osoan eragin aundia sortu eban bide orrek, erlejiño-giroan, salerosketan, erti-lenetan, kulturatan eta abar.

Bizkaia'n eta Euskalerra osoan be bere ikutua izan eban bide onek. Aiztu-eziñak doguz Aymerik Pikaud gotzain ibiltariak bere liburutxuan emoten dauzan barri irain-garriak.

Konpostela'rako bide onetan Erti-lan ederrak daukaguz, erromaniku tankerakoak. Gogoratu, estera-ko Palentzia'n dan Fromista'ko Martin Deunaren eleizea, benetan erromaniku ederra.

Konpostela'ra joiazan erromesak batzutan eleizak eginda aurkitzen ebezan eta eraspén aundiz urreratzen ziran olako monastegi edo etxe santuetara naiz baseleizetara. Beste batzutan eurak egiten ebezan etxeak.

Dana dala, monastegi edo eleiz ospetsu onein inguruan erromesentzat gaiso-etxeak eta ostatua eskintzen ziran.

Giro orretan sartuta aurkitzendogu erdi-aroan Ziortza'ko Monastegia edo lekaide-etxea. Aztertu daigun pizka bat arazoa.

BIDEA

Euskalerrian zear joian Donejakue'ren bidea Ziortza'tik urrin ez dala igaroten zan. Kantauri itxasoaren ertzeko bidea da.

Bide au, antza dagoanez, lenagokoa zan erromatarren kaltzada aregaz batera joian, eta, batez be Santiago bide biurtu zanetik, salerosketarako bide garrantzitsua zan.

Edestilariak diñoenez, santio-bide au Artibai errekearen inguruetatik sartzen zan Bizkai'ra, gero Markiña'tik Bolibar'era eta emendik Ziortza'ra eltzeko. Bidelariak emen laguntza aurkitzen eben eta bideak Gerrikaiz, Albiz, Mendata, Marmiz, Ajangiz, Gernika'ra ta Bermeo'ra jarraitzen eban.

Auxe zan erdiaro zarrean Bizkai'ko biderik ezagunena sortaldetik sartalderantz eta auxe izan zan zin egiteko Bizkai'ko Jaunak artzen eben bidea, Bilbao'tik Gernika ta Bermeo ra etorteko.



Erdi-Aro'ko bide onen zati bat gaur be ikusi daiteke beko bidean asi eta monastegira igoteko.

ERROMESAK

Ziortza Santio-Bidean izan eban garrantzia gogoratzen dauskuen jakingarri batzuk be aurkitu al izan doguz edestian. Argien arazoa aurkezten dabenak, Eleiza onen inguruan ostatua edo gaiso-etxea egiteko ziran agiriak doguz. Txiroak artzeko dala diño agiriak, esatera-ko 1.386'ko I Juan'en agiriak edo VI Klemente Aita Santuarenak. Au 1527'koa da eta onelan diño: «Toki aretara txiro asko eta beste noriki errukarri asko batzen ziran». Baiña oraintsu ikusi al izan doguz beste agiri batzuk lekaide-etxe-ko agiritegian eta oneitan bein eta barriro agertzen da ibiltari edo «peregrino»

berbea eta oneik dirala ostatu edo gaiso-etxe onen onurak artzen dabezenak ziurtatzen dau. Berba oneri buruz ara zer diñoan Etxegarai'tar Karmelo'k argitasun aundiz inguruan beste erromes-lekurik ez egoala jakiñik: «Zelako erromesentzat izan zeitekean gaiso-etxe edo ostatu ori, Donejakue'ra joiazan bidelarientzat izan ezik?».

Beste lekuko bat daukagu oraindiño Ziortza'n, Donejakue-bidean izan eban garrantzia agertzeko: Ziortzan bertan ormetan-eta agertzen diran apaingarriak. Olakoak agertzen dira Santio-bideko eleizetan, esatera-ko oskolak edo kontxak, makillak eta abar. Olakoak arkuen bitartetan betegarri lez agertzen dira, esatera-ko ibiltoki itxi edo klaustroan, Irusta abataren ikurdian, abat onen illobian dagoan taldeko ibiltariaren irudian, atean dan Donejakue'ren zaldidun irudian eta inguruetan eta 1.721n. urtean Donejakue'ri altare bat eskitzen jakon lekuan.

EUROPAGAZ ALKARTUTA

Gaur Europa'gaz alkartzea eguneko gauzea ta arazoa da. Orra or ba bide orretan be Ziortza'k nondik dauan bere zerikusia. Donejakue'ren bideak Europa alkartu egin eban eta bide orreik gure denporetarako be ibilli bear doguzan bideak dira. Bide orretan daukagu Ziortza.

OLAZAR'tar Martin'ek

EUZKO-GUDARI

IZKILLATUEN AZKEN-MEZUAK

1939'an Aleman eta Batuen arteko guda asi zanean, iges eginda egon ziran Euskaldunak ez ziran egon bakez euren alabearrekin, Alemanak Franko'ren lagunak izan zirelako. Geroztik agertu zan lez.

Paris'eko Euskal ordezkartizan, laster asi ziran bearezko neurriak artzen, galbide guztiak desagertu daitezkan Alemanak agertzerakoan, bai eurentzat bai bestientzat.

Ordezkaritzaren eskutuko arduradunak, pardel batzuk bigaldu eutsoezan Dax'en bizi zan anaiari, euki ebazan paperak arriskukoak izan ziralako, Alemanen eskuetara jaustia izan balitz. Eurak gordetzea izan zan agindua, Alemanak Dax'era ondoratu arte.

Jakin gendunean, Alemanak Dax'era sartzen doiazela, kartoizko pardel aundietan egon ziran agiriak apurtu genduzan. Gau osoa egin gendun agiriak erretan, Eleiz-Nagusiaren apaiz etxean, gela bateko tximinian. Paris'eko arduradunaren anaia bizi-zan Iekua zan.

Agiriak erretzen joan giñan'en neurrian, erabilitako (kartoizkoa) pardeltxiki luzanga bategaz topo egin gendun, erroparen dendatan ibiltzen dabezanak arkondarak gordetzeko edo alango pardel-bat.

Izkillatzeko izan ziran Gudarien, azkeneko orduan idatzitako berbak ikusi genduzanean, gorde eta ez-apurtzeko erabagia artu gendun ala edo nola, oroigarritzko agiriak merezimendu guztian ziralako. Negarrez eta begiak malkoz beterik irakurten ibili giñan, aiek ereduizko aitormenak; edozein paper zatitan idatzitakoak. (Batzuk, txokolatearen azal zatitan idatzita). Nolako gazteak euki ebazan EUSKADIK !» Jauna artuta gero, iltzeko bildur-gabeak, prest egon ziranak; ia danak, euren KRISTAU FEDE- BEREZIA aitortuz «. Gogoan geratu jatan agiria, laburtzua izan zan, baina adierazgarria bera, argi-argi erakusten ebana eurak artu eben irakaskintza: «España'ri narda egiten edo gorrotatzen ez diegu irakatsi, EUSKADI MAITATZEN irakatsi dozkue, eta JAINKOAREN GANA EUSKADIREN BIDETIK !».

Eleiz-Nagusiaren koruan (oso zailla bertara eltzeko) organu barruan gogoratu gindun izango zala, erliki-tegi edo pardel berezi ori ostontzeko lekua. Eta an ostondun eban organu-joleak, ziurrezko lekuan.

Alango egun baten, aleman-gudari musika-zale batek eta a organu-jole trebeak igon eban korura, bere bildumatik zati batzuk jotera. Ustegabeko agertua ikusita eta aurrerantzean sarriago, bai beste aleman-gudariekin izan leike lakoan, pardel-txoa organutik ataratia erabagi gendun, eta beste apaiz bateri emon gordetzeko. Oso pozik

artu eban ardura ori arrisku aundia euki arren. Onek, zorionezko buratapena euki eban, idatz-lan guztiak kuaerno baten berriz idaztean, ordu askoko lana izan arren. Gero, berak gorde eban pardeltxo ori.

Guda amaitu zanean, Paris'eko pardelak artu ebazan, bere anaiari emon eutson, ordurako ordezkartizaren ardura berriz artu ebalako, ALTXOR BITXI- EDER ORI.

España'ra erri-agintea eldu zanean, Euskaldun edo Gudari izkillatuen senitarteko batzuk, idaz-lan orren izaera jakin eben. Ajuriagerra jaunari bigalduak ziran ia guztiak, berak banatzen ebalako bear zan unetxo egokian. Ez dakigu zer gertatu zan. Paris'en ordezkartizako arduradunak bere lan-postua itzi eban denborea zan.

Beste aldetik, guk egin genduzan ardurazko lanez gain, berezitasunezko altxor-bitxi aiek aurkitzeko alpeerrak ziran. Ez bearrezko gauza baten-bat gertatu zan.

Guk itxaroten gendun, erri-agintea agertzerakoan, Eusko Alderdi Jeltzaleen eskuetan egon ziran lez idaz-lan auek, berak emango ebala ezagutzera aukar tresneri guztien bitartez. Aldizkariak askatasunean egin ziran; Euskal-telebista biak eta Euskal-irritiak ere bai. Baina zekula-be ez da agertu inon idazbitxi orren adierazpenik, gazte-berri artean ezinbesteko-on egingo ebana, gaurko gazteak ez dakielako guda-aurreko eta osteko gazteen artean nolako indarra ta sinismena euki eben JAINKOA'gan eta ABERRIAN, eurentzat jarrai-bide edo eredu bikain izan daitezkan.

Alango egun berezi baten, baietza emon euskuen: «esku-baltz baten bat arduratuta egon zala», idatz-lan bitxi oiek, odolagaz ziñatuta egon ziran atorraldiak, ikusirakurriren argitara ez daitezkan agertu.

Nire agiritegian daukat, idatzi ziran bitxi berezi oiek argazki-ugaritakoaz berriz ataratako kuadernua. Baten baiño sarritan irakurtzen dodaz biotz-ikararekin.

ZIÑATUTA
MITXELANA'tar MANUEL
Itzultzalle
Atutxa'tar Paul
(2000-03-24)

"MENDIKO BASOAK ETA BARRUTIAK EZ
DOZUZ ERREKO"
Taoismoaren 67n. agindua.

JAKINTZA, JOLASAK, ARAZOAK (BAKIO'N)

JATA-BIKE TXIRRINDULARITZA ALKARTEA

Jata-Bike Bakioko Txirrindularitza Alkartea errealitatea da daborduko. Bizkaiko Txirrindularitza Federakundeari lotuta dago eta, gaur egunean, 25 bazkide daukaz.

Aurtongo 2000 urterako elbururik nagusia bazkide barriak lortzea dabe eta, zeozelan, esponsorren bat eukitea be bai, taldeak maillota euki daian.

Ekintzei buruz esan bear da, zera, Euskadiko Mountainbike Zirkuitoko Leenengo Leiea eratu ebela, joan dan martiaren 12an. Arrakasta andiko lasterketea izan zan, bertan 163 eskuartzaille egon zirala. Datorren maiatzerako Bakioko IV. Mountain-Bike Martxea eratu dabe, zeazto ilaren 13an, eta emen be aurreko urte bietako arrakastea lortzea itxaroten dabe.

Egoitz GARAI

BAKIOKO LIBURUTEGIAREN TXOKOA

Liburuez gan, bertan euskeraz idatzitako aldizkariak be artuten doguz. Txanda onetan, aldizkariotatik iru aitatu deusueguz:

Leenengoa, ARGIA. Euskalerriko astekari onek gaur eguneko gai mamintsuak jorratuten dauz zazpi atal ezbardinetan: politikea, ekonomiea, euskerea, gizarte, kulturea, astialdia eta eritxiak.

Bigarrena, ELHUYAR aldizkaria. Ilero elduten da liburutegira. Punta-puntako zientzia eta teknikea daukaz iturburutzat

Irugarrena, AIZU aldizkaria dogu. Liburutegiko txokora eldu barria. AEKren euskaltegiek argitaratua. Euskera ikasleei zuzenduta dagoan ezker, artikuluak arinak izateaz gan iztegi txiki bat be ekarten dabe irakurketea erreztuteko asmotan.

Beste aldetik, aitatu gura dogu Eusko Jaularitzak bialdutako azken liburua "Laurak bat Montevideo 1876-1898: primera euskal etxea del mundo", Euskalerritik kanpo izan diran euskaldunen bizitzea gogoratuteko.

MUSIKA TALDEAK BAKION

Probalekuan, ordutegi eta egun ezbardinetan, lau taldek entsaietan dabe astero. Talde orren izenak oneexek dira:

- Bi zilbor"
- "Gogoak askatu"
- "Club Zinbawe"
- "Itxas 2.000"

Esate baterako, "Gogoak askatu" taldekoak oneek dira: Alberto, Gaizka, Iker eta Urtzi.

KONTROLBAKO SASTARTOKIAK

Gure erriko bide bazterretan, mendi bizkarretan zein amiletan ainbat bider ikusi izan doguz baten batek, geienetan ilun dagoanean, edonon, bertan bearen ganera botatoko sastarrak edo etxeko ondakiak. Orreei deritxegu, bada, kontrolbako sastartokiak.

Sastartokiok, ganera jaio eta, azi egiten dira arin-arin. Ingurugiro eta izadiari kalte andi be andiak egiten deusez sastarrak edozein lekutara botaten dabenek. Bizkaiko Aldundiak, daba, orreelango 168 kontrolbako sastartokiak garbitu

eta lekuak leengoratu gura dauz Bizkai osoan. Orreetatik batzuk Bakion be bai. Sastarrak bota aal izateko, baina. "Garbigunea" deritxen kontrolatutako sastartokiak atonduko dira an-or-emen.

Iniaki MARTIARTU

BAKIOKO TXISTULARI TALDEA

Urrengo lerrootan Bakioko txistulari taldeko kide dan Jon Uriartegaz euki dogun berbaldituaren emoitzea daukazu. Aor dozue, bada, talde ori ezagutzeke aukerea.

ZER: Noztik zabiltze txistulari talde lez eta zelan asi zinen?

JU: Irugarren urtea izango da au. Beti ibili gara erriko jaietan kalerik kale jotan, baina orain iru urte batu ginan eta alantxe asi ginan, apur bat, talde lez antolatuta.

ZER: Zeintzuk dira zeuon elburu nagusiak?

JU: Gure elburu nagusia errian txistua indartzea da. Ikusten dogu azken urteotan txistuak indarra galdu dauana errian eta indar ori birreskuratzea da guretzako garrantzitsuena. Orretagaitik aalegintzen gara jai eta ekitaldirik geienetan egoten, txistuaz jai giroa sortzen.

ZER: Sasoirik gogorrena udaldia izango da, ezta?

JU: Ez pentsatu, naiko zabaldua daukagu bearra urtean zear. Baseleiza guztietara joaten gara euren ospakizunetan, au da, San Martin, San Kristobal, Santa Katalina, San Esteban eta Santa Ursula baseleizetara. Ortik kanpo, erriko jai nagusi guztietan egoten gara, eta gero, deitzen deuskuen jai eta leku ezbardinetan be egoten gara, Euskera Egunean, esate baterako.

ZER: Zelan ikusten dozu txistuaren osasuna erriko gazteen aldetik?

JU: Gazteenkaz asi ginan kalerik kale jotan, baina orreetatik geienek itzi egin deutsoe txistua joteari eta dago atzetik jarraipenik. Musika instrumenturen bat joteak aalegina eskatzen dau eta ekin egin bear jako, ganera, uste dot txistuaren berotasun ori galdu egin dala gazteengan. Eta ganera, gaurko gazteek ekintza asko daukez parte artzeko eta aukera orreen artean, antza, txistuak galtzen dau oraingoz.

ZER: Emoten jako zeuen lanari garrantzirik erritarren aldetik?

JU: Bai, batzuk ikusten dabe zelan or bearra eta aalegina dagozana eta konturatzen dira olango ekimenak berez ez dirana egiten.

ZER: Entzun edo ezagutu dozu zuk zeuk Bakioko txistulari zaarrik? Egon da inor?


JU: Nik bertokorik ez dot ezagutu. Leenago, beti etorten ziran kanpokoak, Mungiakoak edo. Bakion instrumentuak joteko baino abesteko tradizino andiagoa egon dala uste dot nik.

ZER: Aurrerantzean, orduan, txistuaren egoerak obara egin bearko dau, ezta?

JU: Bai, zalanza barik. Ea denporea eta bearraz zaletasunak gorantza egiten dauan, ze uste onetan, nik ez dot ikusten txistuaren aldeko berotasunik. Erriarentzako be aberasgarri izango litzake txistulari gazteek jotan segitzea, baina, ikusi egingo dogu...

Unai BEITIA.

YEBRA DE BASA'N, SANTA OROSI'REN JAIA



Latxaga, gizon jakintsua eta Euskalerrri'ko seme zintzoa dana daukagu, Euskalerrriagaitik beti pentsalari eta beren gogameanean, Euskal-izaeraren edestitik zear, bai gaur eguneko gertaera gaitik ere, egiñalak egiten dauzana.

1976'an "JAKA'RA ONEZ NAPARROA'N ZEAR" liburua idatzi eben, erritxo guztiak oñez eta urratsean arakatuz; gaur, bitxi-bat dana eta aurrerakoan garrantzi aundiagokoa izango dauana.

Orregaitik, neuri esan ustan: Aragoi'en dauan Santa Orosi'ren Baselizara joan bear gendula beren jai egunean 2.000'an Ekaina'ko 26'an, ikusteko nola ospatzen daben gaur egunean jai berezi ori.

Nik, baietza emon neutson, eta bai arduratu zan ere lagun bategaz, Urkola eta Elizegi'tar Mikel ta beren emaste Bustillo ta Gonzalez'tar Elisa, UPV'an goi-maillako maisua bera eta Elisa Erriko eskolan zuzendaria dana.

Lizarran jagi giñan goizeko 6'retan, eta gosariaren ostean Iruña'ko bidetik Jaka'ra eldu giñan, Sabiñago, eta Osan'en desbideratu Yebra de Basa'ra eltzeko.

Erri onen Eleizan daukiez Santa Orosia'ren irudi eta bai beren buru-ezurrak, irudia'ren buru-barruan sartzen dabezanak, erromerian, Santa Orosia'ren Baselizara joateko urtean baten, jai ospatzeko Orosi Martiria'ren omenez.

Yebra de Basa, azkeneko erritxo-bat da Oturia mendi azpian kokatuta dagoana. 1920 metru daukaz Oturia mendiak goitasunean, eta Santa Orosi'ren Baseliza bere zelaikada aundiaz 1.500 metro'ra dago kokatuta goitasunean. Bertatik, argi-argi ikusten da Oturia'ren gallurra.

Yebra de Basa'n alkartzan dira goizeko seiretan inguruko erritxo'koak, bai bertakoak ere, eta zazpiretan urtetan dabe Santa Orosi'ren basiliza'rantza eliz-biran; Yebra de Basa'ren Eleizako Gurutzea aurretik doala meza-mutil batek eroanda; urrangoak dantzariak makil-dantzaz doazela txistularien doñuarrenkin; ; urren, ingurutako Gurutzeak, erromesak eroaten dabezanak (aurten, 12 izan dira, antziñan 100 baino geiago izaten ziranak) euren erromes jantzirekin, eta eleiz-ikurriñak; ondoren-

go, Santa Orosia'ren irudia, lau andariren artean eroaten dabela; eta azken abadeak.

Geienak oñez igoten dabe eliz-biran, eta Santa Orosia'ren Baseliza inguruan 5-6.000 giza-seme batuko ziran.

Goi-aldera 9 1/2-10' etarako elduko ziran, eta otoitzan bai jantzan ere ekiten dabe, 12'etan Baselizako kanpaiak deitu-arte.

Leku askotatik joaten dira ospakizun ortara, ez bakarrik Yebra de Basa eta ingurukoak, bai Bartzelona, Zalduba(Zaragoza) eta Madrilgoak ere, eta zer esanik ez, Oska'koak (Huesca) ere.

Meza Santua landan ospatu zan, ainbat kobla edo bertsu Santa Orosia'ri abestuz; dantzariak, basilizaren barman azken dantzak Martiria'ri ezkeiñiz.

Meza Santua ospatuz, abadeak dei egin euskun an egon giñen gustiai, baskaldu ostean, arrastiko bostetan ain zuzen, pastoralak egingo ziralta Orosi Martiren omenez, ospakizun guztietan egiten dan lez. Eta orretarako, lekua mugatuta egon zan aurretik, iñorango arazorik ez daiten agertu.

Janaririk egon ez zan lez, edo ogi-tartekorik saltzen, edariak baizik, gure zakelak arrastiko ordu-bi ta erdietan, berantza joan bear gendula esaten euskun

Artean, ez gintzazan geldirik egon, eta erdiratu giñen txistulariekin, bere jo- galluak nolakoak ziran jakiteko, eta an ikasi gendun: txistua egurrezkoa zala, sugearen larruekin azalaztuta; txun-txuna ere, antziñekoa izanda ondo zainduta egoana zan. Galdetu genion, ia zenbat abesti eukazan beren jakin-sortan, eta amasei daukazela esan euskun, geienak Zubero'koak edo bardiñ-antzekoak izanda beintzat. Gazteak ere, makil-dantzaz jantzan egiten ebenak, gureak dirala esango genuke. Mikel'ek esan eban makil-dantza orren buruz: "AUNAMENDIKO OITURA ZALA" eta orregaitik "EUSKAL OITURA" ain zuzen.

Ezin dabe esan ez! Euskaldunak ez zirenik, eta euren itxura eta izaerari begitu ezkeru, ni "EUSKALDUNEN ARTEAN IKUSTEN NINTZEN".

Latxaga, txistulariaz berbetan egon zan, eta 1976'an beren aitagaz gaurko egunan Ekaina'ko 26'an egon zala, argazkiak atara eutsozela mutil gazte-bat ondoan eukinda "JAKA'ra ONEZ NAFARRO'an ZEAR" en liburua idatzi ta argitaratzeko. Txistulariak esan eutson, txistularien ondoan egon zan umea bera izan zala eta txistularia beren aita. Datorren urtean, ostera ere joango giñela esan eutson Latxagak, eta liburua, nai Euskeraz idatzita egonda-be, eroango gendula berari eskaintzeko.

Sabiñanigo'n baskaldu gendun, eta jakintsuen artean, solaseko alkar-izketa gozoa izan zan.

ATUTXA'tar Paul
ZORNOTZAN 2.000'an UZTAILLA'ren 3'an

EUSKALDUNA

•;-'==M''' ∞/0---

>

Euskaldun seme arrigarria
adi daukazu begia
zure fedeak edertzen zaitu
zabaldurik giz argia,
zeru ta lurak gora zaitue
euskaldun agurgarria
goiko ortzetik agertu jatzu
zuzentasun gidaria.

Jaioterria ta Jaungoikoa
dira zure oiñarriak
gorengo izaki eder bi onek
sortu deutzue erria
lenen lenengo gure Jainkoa
da zure argi bidia,
onen ondoren, bizi bizirik,
euzko lur maitegarria.

Sustrai onetan ikusi dozu
zure bizia indarturik,
egi egitan, gizonarentzat
ez dago bide obarik,
Ni naz bidea autortu euskun
gure Aitak betidanik,
au da egia euskaldunentzat
lorrotz zuzenez josirik.

Bigarren itza... zoragarria...
eldu jaku zeRu goitik
eusko semeak onartuteko
gogo onez biotzetik,
Ni naz egia diñosku Jaunak
argiaz inguratirik.
giza biotzak bizi daitezen
eskubidez indarturik.

Euzko gizadi sinismendunak
ez dau nai daiztakeririk
erria zabal ta eskubidez
ikusi nai dau bizirik.
berezkoa dan zintzotasuna.
biotz barnean sorturik
egiaz doa bere bidean
maitasun garrez suturik.

Irugarren itz agurgarria
zerutik dator kantari
abotz zoliaz abestuagaz
maite daben erriari,
euzko biotzak oroz goitikan
entzuten dautso Jaunari,
gora ta gora, geroztik beti,
jarraituz Jaungoikoari.

Polzaldietan eusko semeak
dabiltzaz esker -miñetan
neke aldian gora begira
eskari ederrenetan,
iturri on bat dauka biziak
Jankoaren eskuetan
eta euzkotar zeru zaleak
bizia maite egitan.

Jainko Altsuak ba-ditu lurrez
bere maitale zintzoak.
Jaungoiko onak ikusten ditu
bere aurrean etsaiak,
Bizkaiko lurrez Bilbo gaiñean
dagon Jesusen Biotzak
izan zituan aldi aretan
bere erasotzailleak.

Lege gizonen batzar nausian
agertu zan arazoa
Jesusi buruz... baietz ta ezetz...
apurtzeko irudia.
zorionean AGIRRETARRAK
agertuz goi adoria,
eurak bakarrik babestu eben
Jesusen Biotz maitia.

Zergatik dauka euskal jatorrak
zuzentasun guraria...
Nork emon dautso euzko onari
ain indar zoragarria.
lurretik gora onartuten dau
egiearen adoria
eta berez dan Maisu Nausiak
agertzen dautse bidia.

Berezko deia dau euskalduak
jorratuteko bidiak.
ain da ederra mundu guztia
goratuteko anaiak,
bizitza billa urten etxetik
ta aurrian daukaz erriak
biotz zabalez edegirikan
bizitzaren goi atiak.

Eusko semea zuzentasunez
doa mundu zabalera
ta bere argiz eta biotzez
begira dago izadira,
abegi onez artuten dabe
eusko kristauen jokera
ta euskalduna agintzen dabil
gizon zuzenen erara.

PAULIN

IGEL BATEN GOITIK-BERANTZ



Antxiña baño antxiñago izan-zan lurre'ko leku baten, izeneko Berakalde: Agertuzanla, andiko istil baten, beinbe ez zan ezagutulako, igel bat, eukanak uledi urremargodun eder ta luzea. Ez ori bakarrik, zalako gutxienetik bost oñeko luzea, ta ibiltenezana zutik. Orregaitik zan, beinbe ikusi igel alakorik. Baita be, igel aren aboska ez zalako beste igelen lakua,

entzuten zalako: «kun-kun-klin-kon» bañe txilinkaren ots eres eresiten atsegingarri. Batetik itxura berritasuna igelarena, ta bestetik aboska ots eres eresitan atsegingarrak zirikatutenebein igel ikusi garri arek.

II

Lurreko leku gustieaitik, jakiñegez, aldebatetik ezan alas itxas-txoriak, bestetik egaberek, lastatxoriak, irra-irrak, txori lapurrak, orreik ta geiagok lurgañean, ta lur-beko arteko guztietakoak zabaldu ebein izparbarri ori; alantxe, leku gustietakoak ikusnaiz beteta berritasun arelakoaz. Berakalde-ko ingurutan ikustezean.

Egun areitan Lurrean bi-bernako lurtegiak ondiok ez dagozen.

Orduarte ikuzi ebein artean igel uledin a, euan txindurreartean jakintsun bat, ta onen ezanez: «Igel ori da izatasunen izukari bat-bakarra. Beinbe nere jakiñez, ez dalako ikuzi onelako igelerik, izanlezkela dala, nere uztez, berezko gertakari bat». Beintzat ori orrelan izan-goazan, edo ¿izangozan orrelako igelazkenekoa, igel uledi a, danen aurrean euana?. ¿Zer egiten?

Igel arek, ikustenebenez, zenbat ta zenbat etorten zeala beari ikustera, bera-be ikusten-zan beren ispilluan, istilean, geratuteko beari ikusten ureko ispilluan.ezanarez: «Bai, benetan politena naiz, ederrena, danorrein anean». Ta ibiltezan pozik, arrotasunen atzamarretan.

«Ni baño politagorik, ederragorik ez dago inunbe. Orregaitik datoz ainbeste, ona, neri ikustera». Ta berriz ikustezen beren istilko ispilluan.

Bañe, beinbaten, ainbeste ikuspera artean, ikusi eben igel arek, an ondorengo, NEREIBAION, zenbait beren ikusnai iratzarri euzen, beinbe ez ebena ikuzi:

¿Zeiñ zan?: ITXAS LAMIA-MAITAGARRI bat begiratuten eutzala ta eskuas bialdutenentzala musuak. Igel a geratuzan itzututalez beinbe ez ebeineñako ikuzi alakorik.

Itxas Lamia geratuzan begira uledi urremargodun igelenari, ezanaz, berentzat: «Ni nago KARTSOIL -ULE -GABE, jantziten ITXAS -BEDARRAK ez ikusieñ nere kartsoilea. Egiñ bierdot alegiñ gustek kentzeko igel orreri beren uledi eder ori, egon-eizen orren buruan ordez, nere buruan, jizan eizen nerea!».

Ortik aun-era ITXAS-LAMIAK ekiñ eben beren bearra, lapur-tuteko igelari uledi a.

ITXAS -LAMIA euan bekaizkeriz irakiten, ta ikustenebenian igelen arrotasuna aundia zala.

Irabasteko igelen gogoa, itzas -lamiak ezaten eutzan: "Edertazunez iñok ez dotzu irabasten, zure aboska da atsegingarria, zure soiñek ez dako berdinek lur guztean, zure begikera da aiñ ikusgarria".

Ta orrelako miñ-labanaz, egunero azte baten, igela euan gertu naie-benerako itxas -lamiak.

Arrotasunak eruan eutzan igel areri nai ebenera itxas-lamiak: geratu eizela igel a₁ lo!

Itxas-lamiak arkuntz aretarako eukan gertatuta logarrigarri bat, ta igel ak edadi edo arnastu-artze eben, geratuteko lo, arri-bat lez, jillebaten!. Orrelan eukan itxas -lamiak naiebena, egiteko an ibai-bazterrean: bir-aldaketa zerraldatu igelen burutik, uledi gustea itxas -lamiaren burura, banan -banan. Danori egiñen itxas -lamiak estaldu alaz igelari itxas-bedar neikuaz, iñorek ez ikuzieiten egite-nebena igel areri.

Orrelan iratzarri zanean igela, ta ikuzizanean Nereibaion uretako ispilluan beren uledi eder gabe, gustiz kartsoil -ulegabe beren burua, joan zan beren istileko ispilluan ikustera zelan euan beren burua, ikusteko geratuzala beren uledi eder gabe, guztiz ule-gabe. Eziñ eben ziñistu ikustezean. Orrelan ekin zan didarka, baña beren aboska be aldatusan, lengo «KRO-KRO-KRO -a». Dana aldatusan, geiago ez ibillen zutik.

IV

Ezatenzan:

«¿Zelako zentzu gabe izan naiz!

¿Zelako burugabeko izan naiz!

¿Zelak izan Iezke geratunai-zela nere uledi eder gabe?

¿Zelako lotsa nerea!

¿Emetik aurrera ni ez naiz izango

izanitzanal. Belu izan-arren, orain

ikustendot zer diazen: bakuntasu-

na, arrotasuna, gezurre, bekaiz-

kerzie, gutuziatua, zurikeria,

irritasuna, koipekeria, azpikeria,

utsalkeria, andikeria, gaiztasuna


ta ainbeste geiago!.

¿Urte areitan izan nitzan, bañe oraiñ ni ez naz

izanitzana, igel ulegabea baño: ¿Ez naiz ezer!,

¿Ez naiz ezer...!" -ezaten euzan negarrez itxoten

beren malko -artean...



V

ONDOREN

Txindur jakintzuak jakin ebenian igel uledi eder aren Zorigaitzea oroitu eben, bein entzunebena Amazonas ibai aundi aren aldeiarartean:

"Ez zate igo aiñ-aiñ gora

-ainbesteko sari txipi-

uztezaralako geinartean geiena,

ba zuzatz aundienari, an goi-goi,

aizeak be kentzenlez beren lora maitea".

ONTZATEGITXU

Lima, Perú.

Ipu- au da bat agertuzianean CUZCO-n, PERU-n etxezar bateko gaimonetan, ta uztendabeñe batzuk, izaniezkieilla Lope Aguirre-n beeranizkoe-nak. Ipuin oneik dagozeñ idaztita ONTZATEGITXU-tik, pergamiñetan (auntz-larruetan) antxiña ta ikuskekaribatek 1940 urtietan erozieutzela, andiko zaltzallebateri. Ipuin oneik uztenda izanziala idaztita 1.650-1.700 urtietan (g.g.b). Orregaitik iratzargatu dabe gogo -aundea irakule artean.

Idazle batek ezandau: «Ipuin oneik ez dea bakarrik onak gaztientzat, baaita-be naguzientzat».

IZAR ARGIALDE-k (Lima'n, Perú'n) ezatendau uztendabela ipuin oneik dagozela idaztita BIZKAIA-ko antxinako euzkorean.

BAKIO

Bentatik Bizkarganerako espaloiak amaitzeko aginean

Bentako aparkalekutik Bizkarganera doan bidearen alboko espaloiak emendik gitxira amaituko dira. Bearrok zezeilean asi ziran eta maiatzean amaitzea aurreikusita dago. Alan da ze, bear orreek, aprobetxatuz, aparkalekuko gunea apur bat anditu da eta Bakion oinez ibilteko beste eremu bat egongo da.

Bakioko Udalak 50.000 pezetako dirulaguntzea SEASKARI

Seaskako "Herri Urrats"jaia 2000ko maiatzaren 14an egongo da "Gaurdanik gerora" leloaren pean. Ori dala eta, jaietako antolatzailuek udalari bialdu eutsoen Iparraldeko ikastolei dizuz laguntzeko eskabidea. Udalak eskabidea kontuan artu eta 50.000 pezetako zenbatekoa emon deutse ekarkin ekonomiko lez. Era berean, Euskera Batzordeak "Herri Urrats" jai andi orretara joateko autobusa ipiniko dau. Alan bada, bakiotar guztiak animatu gura doguz euskeraren aldeko jai orretara joan daitezcan.

Bakion Euskadiko Mendi Bizikletako Txapelketea

Martiaren 12an Bakion egin zan Euskadiko Mendi Bizikletako amar leia puntuagarriariko leenengoa. Leiaketa orretan 163 txirrindularik artu eben esku ainbat kategoriatan bananduta. Eskuartzailuek igarrian-igarrian itzi gura izan eben Bakion izandako antolaketa ona eta giro bikaina.

Bakio Monzambikegaz bat eginda

Guztiok dakigun lez, zezeileko uriolen ondorioz, Mozambique une onetan estualdi ezin larriagoan dago. Ori dala eta, udalak 100.000 pezetako laguntzinoa eldu eragin gura izan deutso errialde orreri, EUDEL alkartea osotzen daben udal guztiak batera abian ipinitako kanpainarean bitartez. Era berean, erritarrei laguntzinoa emoteko eskatu jake BBK-ko 2095-0611-00-9102291358 kontu zenbakian dirua sartuz.

San Pelaioiko Urkitxiko ur biltegia amaituta

Udalak daborduko San Pelaio auzoko Urkitxiko ur biltegia amaitu dau. Orren elburua izan da auzoko orrelako erritarrei bear dan moduko zerbitzua emotea. Izan be, oraintsu arte ango ura Burgoatik artzen zan, baina sikate sasoiaren ez zan eskabideari egiteko beste. Ori dala eta, 100 metro kubikoko ur biltegi barria egin da, sanpelaioarrek problema bape euki ez daien ur ornidureagaz.

Udalak 5 udaltzain eta 3 ondartzain bearleku sortu dauz udarako

Udalak martian barrena egin dauz udaltzain eta ondartzainak aldi batez kontratatatzeko probak. Iru ondartzain eta bost udaltzain plazatarako probak amaitu ostean, azterketak gainditu dabenezan izendapenak egin bear dira.

Identifikatuak areatzen ondoratutako belaontziaren ondakinak

Ikerketa onegaz arduratzen dan lan taldeak (Miguel Uriarte Sancho, Juan Uriarte De Grado, Sabin Uriarte Picó, Ander Uriarte Egurrola, Iñaki Oiarzabal Uriarte, Igor Goti Zugadi eta Alejandro de Pablo) zeaztu aal izan dau belaontzi ori "Sloop" izeneko fragata ingelesa izan zala. Itsasontzi ori 1800-1840. urte ingurukoa zan eta makila bakarra eukan, bai eta erreskadan ipinitako bela trianguluar bi be. Kortsarioek eta itsas lapurrek erabili oi ebezan ontzien antzerakoa zan. Ikerlan oneri jarraituz, XIX. mendearen erdialdean egin eta Bakioko Udalak 1890etik aurrera erabilitako armarrarian agertzen dana (egiazatu aal izan da orren ezaugarrien antzeko belaontzi bat agiri dala) ondoratutakoagaz zerikusia euki leikena. Armarrarian irudian itsaso bizi-bizia eta belaontzi bat agertzen dira, bai eta Bakioko parrokiaren dorrea be, gaur eguneko armarrarian itsasargi batez ordeztua izan dana.

Kanoiak ibiltokian ipiniko dira eta, geroago, etorkizuneko museoa

Orain arte ondakin orreetatik birreskuratu aal izan dira 7 kanoi, kanoietarako bolak (normalak eta ausleak), aingura bat, fusil bat, kanoietako baketak, eskudelaren, balkoiaren zein txokoaren zati batzuk eta "B" iniziala daukan kontrapisua.

Orreek guztiorreek jagon guran, gatzak sortutako ugertzea neutralizatzeke aaleginak egiten dabilz, ondatu ez daitezcan.

Alan da ze, kanoiak birreskuratu ostean, udalak itsas ibiltokiaren erdialdean ipiniko dauz. Edozelan be, Bakioko museoa abian ipinten danean, kanoiok bertan kokatuko dira. Ganera, euren istoria jasoko dauan erakusketea egiteko asmoa dago.

Patxi Renteria, txarrikietako Euskadiko txapelduna, Sopuertan

Sopuertan martiaren leenengo asteburuan egindako txarriki txapelketan Bakioko Patxi Renteria izendatu eben txarrikietako Euskadiko egilerik onena. Daña dala, ez da Patxi irabazi dauan leenengo saria. Izan be, Mungiako San Antontxuko ferian bigarren lotu zan txorizoen txapelketan. Alan da ze, Sopuertara bertaratu zan bere produktuen kalitatea egiaztatu guran. "Aurreko sanen ostean, neure buruari esan deusot: gurean egiten dan txorizoak zerikusia euki bear dauala orrelakoak irabazteko orduan. Orduan bada, ona etorri gara ori egiaztatzen".

Nekazalturismoa bultzatzeko ikastaroa

Apirilean nekazalturismoaren inguruko ikastaroa amaitu da arrakasta osoz. Bertan 20 pertsonak artu dabe esku eta 3 gai izan dira nagusi: batetik, finantziatzinoa; besterik, kalitatea eta zerbitzua eta, azkenik, paisaia eta eraikinak jagon eta birreskuratzeko gida lerroak.

ZIDURI

BAKIOKO SAN PELAIO BASELEIZEA

Gure erriko auzorik ederrenetarikoa bateri izena emoten deutson eleizearen ganeko azalpen batzuk doatzuez urrengo lerrootan. Jakingo dozuenez, oraintsu izan da barriztatua erlijiozko eraikin ori eta esan bear da, bear onona egin dabela bertan.

—Eleiza orrek daukazan ezaugarriak nagusienak erromaniko sasoiak dira, au da, XII. gizaldiaren ingurukoak. Zeazkiro, istorialariek gizaldi aren azken berrogeita amar urteetan kokatzen dabe beraren erakuntzea. Esan bear dogu be, Bizkaiko Arte Erromanikoaren erakusle nagusiak Abrisketako San Pedro, Zumetzagako San Migel eta Bakioko San Pelaio dirala, eta orrek esan gura dau, garrantzi andia euki ebala inguru onek sasoi ilun eta gogor areetan. Kontuan artu XII. gizaldia zala, eta oraindinokarren baserria, guk ezagutzen dogun eran, ez egoala.

—Ez da arkitekturaren jakituna izan bear, San Pelaiok eta Zumetzagako San Migelek antza andia daukena ikusteko, batez be, euren arizko sendotasun parebakoan, sartukerako eta altara atzeko dekorazioan. Bear bada, argin eta beargin eurok eregiko ebezan biak.

Beste alde batetik, jakitunek dinoenetik, San Pelaio eregi ei zan Gaztelugatxeko San Joanera joateak ekarten eban nekeagaitik. Alan da ze, Gaztelugatxe lotu zan gotorleku edo fraileen eremutoki izateko eta eleizkizunak, geienbat, San Pelaioren egiten ebezan.

—Garrantzizkoa da be, Santiagoko Bide ospetsuaren itsasaldeko adarretarikoa bat emendik igaroten zata. Sasoi areetako erromesek Gaztelugatxeko eremutokian artzen eben atsedena.

Guzti au kontuan artuta, ikusten da, geuk bere, erri txiker izan arren, istoria euki badaukaguna, eta ori gozatu eta jagon bearko geunkela, gure atzekoek jaso daien, guk geure aurrekoengandik artu doguna.

UNAI BEITIA

ONDO EGINAK ZER MEREZI DAUAN

(R.M. Azkueren ipuina)

Otsoa, arri andi batek azpian artuta, urten ezinik arnasoska egoan. Gizon bat beraren ondolik igaro zan.

- "Atara naik emendik, laguna, atara naik"-zirautso otsoak.
- "Baina ik jan egingo nok eta oba joat nik bakea."
- "Ez, ez aut jango eta atara naik."

Gizon arek, azkenean, otsoa arripetik atara eban. Otsoak orduan:

- "Gose danak jan egin bear jok eta oraintxe jan bear aut."
- "Ez deustak esan ba, jan barik itziko nindukala?"
- "Esan bai, baina gose danak jan bear jok eta.."

"Ona ba, otsoko: bidez bat egin daiguzan iruren burubidea jarraitu daigun. Ondo eginak txarto merezi dauala badinoe, jan naik orduantxe"

Badoaz, badoaz, badoaz ta bide ondoan txakurra aurkitu eben, oztan-oztan ebilen txakur zaarra, musturra lurregino goseak makurtuta eukana.

- "Eup!" - otsoak txakurrari. "Ondo eginak zer merezi dau?"
- "Ondo eginak txarto. Makina bat erderdi antzitu dodaz nik gazabearentzako eta orain gosez ementxe nauka!"

Badoaz barriro, joan ta joan eta bei zaarra aurkitu eben, larra baten oboen-oboena ebilela.

— "Laguna"-itandu eutson otsoak, "ondo eginak zer merezi dau?"

"Ondo eginak txarto. Amaika esne zurrutada eder emonikoa banaz ni eta orain ementxe nauke gosez azur utsean!"

Otsoak orduan gizonari:

- "Onezkero jan bear aut"-esan eutson.
- "Ez ni, irugarrenari beraren eritxia entzun barik."

Aurrera ta aurrera joiazala, lukia aurkitu eben.

— "Ondo eginak zer merezi dau lukito?"

— "Ondo eginak zer merezi dauan! Ea ondo egin ori zelakoa dan".

Batak eta besteak lukiari curen artean jazo zana edetsi eutsoen. Lukiak orduan:

"Otsoko!, leen zelan egon zan ikusi bear joaguk, orretarako"
Ori esanaz, irurak leengo bideetan zear, aroko arri andia aurkitu arte, ibili ziran.

— "Auxe da arria" -esan eban gizonak.

Lukiak eta gizonak otsoa arriaren azpian imini eta esan eban lukiak:

— "Egon aite orain bertan, kokolo txarreko ori!"

Ori esanda, gizonagaz batera alde egin eban.

Ori alan izan bazan,

sartu daitela kalabazan

eta urten daiala

Uretako errotan

BERBALAPIKOA

bidez bat egin daiguzan= bidean aurkituten doguzan.

burubide= aolku.

oztan-oztan= nekez, doi-doi.

antzitu= arrapatu, oratu.

oboen-oboena= birala, itzulika.

lukiko= ipuinetako lukia.

jazo= gertatu, pasatu.

edatsi= edestu, kontatu.

joaguk= dogu. (itanao)

aite= zaitez. (itanao)

arnasoska= arnasestuka, itobearrean.

igaro= pasatu.

naik= naizu. (itanao)

zirautson= esan eutson. (irausti)

nok= nozu (itanao)

joat= dot. (itanao)

deustak= deustazu. (itanao)

otsoko= ipuinetako otsoa.

Iniaki MARTIARTU

ZER DERITXOZU?

Dakizuen lez, Euskalerrria da Europako jaiotza tasarik txikerrena daukan errialdea. Gauzak olan, ainbat komunikabidetan entzuten asiak gara gizarte segurantzeta eta jubilazinoako soldatea desagertu leikezala, gizarte gero eta zaaragoa izango dala eta kanpotarrak ekarri bearko dirala bear egiteko.

ZERek ainbat bakiotarreri itaundu gura izan deutse zer egingo leukeen orrelango egoerari urtenbideren bat topetako.

Antza, Euskalerrrian ez dago bear da beste umerik.

Zuk zer egingo zeunke egoera ori konpontzeko?

Gorka Uriarte

Nik egin bearrekoa egin dot. Dana dala, gauza erreza egin leiteke: kondoiak zulatuta saldu. Txantxa ona izango litzateke.

Joan Mari Abio

Oraingo gazteek lar dakie umeak mundu onetara ekarteko, ze ezkondu baino leenago ondo baino obeto ezkondata dagoz eta lar ondo bizi gura dabe. Dana dala, bide bat izan leiteke, ama edo aitari dirulaguntza ona emotea umea jagotearren.

Sabino Areitio

Leenengo bizi bear da eta gero, 40 urtegaz edo, umeak mundura ekarten asi.

Jasone Longarai

Aita-amei erreztasun geiago emon bear jakez, benetako zerbitzuak eskainiz. Umezaintoki gitxi eta karuak daukaguz, eta, ganera, andrazkoei ondino be itaunduten deuskue ea umeak ekarteko asmorik daukagun ala ez. Umeak ekarri bear badira, orren aldeko politiketa bultzatu bear da

Sokorro Bilbao


Nik gatx-gatx ikusten dot kontu ori, oso eroso bizi gura dogulako. Ganera, nik ez dakit jendea konforme egongo dan umeak edo gazteak kanpotik ekarteko. Ume gitxiago ikusten oitu bearko dogu, seguru antzean.

Maria Santisteban

Umeak azi eta jagoteko denpora geiago euki bearko leukee gurasoek. Ez dot uste diruak bakarrik arazoa konpondu leikela.

ZIRUDI

BURDIN-OLAK (III): SALTZEN



Bizkaiko Burdinea saltzeko dideak; Frantzia'ra Frandes'era, Englad'era, XIV Gizalditik XVI era.

ren salketak Brujas'en agertzen dira. XIII gizaldiaren azkenean, XIV eta XV'ean Euskaldunen burdina Europa guztian gurena zan. Burdina ori sutegi txikietan lortua zan, oraindiño txirrinka idar-emoilea asmau barik egoalako. Daukaguzan agiriak daukaguzalako, esan geinke urtero saltzen zan burdina, Gipuzkoa'koa be barru dala, 4.000 edo 5.000 tone zirala. Gaur gitxi dala esan geinke, baiña urte areitarako asko be asko zan.

Burdina au eroateko Baiona'ko ontziak ugaritu ziran eta Bizkai'koak be XIV gizaldian Europa'n ugarietak ziran. 1.397n. urtean errege-agindua bat agertu zan, bertokoak ez diran ontzietan burdina eroatea galazoten ebana.

Aibat urtetan, oster, Euskalerrian ez zan lan aundirik egin burdina aldatzeko eta Toulouse'tik, Rochelle'tik eta Normandia'tik ekarten genduzan burdinezko tramankuluak. 1.293'an Donostia'k burdinezko orratzak, amuak, erpiñak, orkillak eta elestunak ekarten ebazan, baita eungintzarako tramankuluak, burdin-ariak, burmeak, titerak eta olakoak be Olako burdinezko gauzak saltzen XV gizaldian asi giñan: orratzak, aingurak, untzeak eta abar.

XIV ta XV gizaldietan Bizkai'ko burdina izan zan España-inguruan, Flandes'en eta Ingalterra'n itxas-ontzi asko eta asko erabilten ebazana. Florentzia'ko salerosle batek itzi dauskun ingurrazti baten, XV gizaldikoa berau, España'ko burdina urteteko kai lez oneik agertzen dira: Santander, Laredo, Castro-Urdiales, Bermeo-Getaria eta Donostia eta au diño gaiñera: "Burdina-kopuru aundiak ateraten dira". Ba-diño burdina ori nora doan be: Sevilla, Brujas, Lisboa, Ingalterra, Barzelona.

FRANTZE'RA

Gure burdina eroateko portuen artean ez dira agiri Frantze'ko kaiak. Zergaitik ori? Italia ko ontziak Frantze'ko kaietara sartzan ez ziralako or euskaldunak ziran nagusi.

Gure burdin-olak lanik geien egin eben urteak XIII gizalditik XVIII rakoak izan ziran. 500 urte! Ez dira gitxi! XVIII gizal diaren azkeneratza asi zan jausten ekintza onuratsu au. Gero esango dogu zergaitik.

Ba-dakigu XIII gizaldian gure burdina Ingalterra'n saltzen zana, Baiona bitarteko zala. Gizaldi orretan baita, 1.253n. urtean, euskaldunen burdina-

Esan geinke, baita, XVII gizaldian gure burdina bearrekoa zala Frantze'n, lurralde onetan burdina gitxi egin zalako, bear eben baiño askoz gitxiago eta Ansa'ko lurraldetik be ekarten ebela.

Ba-daukagu beste idazki bat, aldi aretakoa, orduko burdin- salketa nondik nora ebilla jakiteko. XV gizaldikoa da eta auxe diño Frantze'ko deitzaileak: «Orain aitatu daigun burdina. Zuek Ingalterra'ko burdina daukazue. Frantze'n. be ugari daukagu. Baiña itxas-ontziak egiteko burdinerik onena Bizkai'koa da. Au okertu egiten da zatitu barik. Gu Bizkaia'ren auzokoak gara eta orregaitik eskuratu geinke Bizkai'tik burdin asko eta merkea.»

Esan dogun lez, Bizkai'ko burdina ugari sartzan zan Frantze'ko kaietara, naizta gauza erreza izan ez zenbat esatea, ori argitzeko beste agiri ez daukagulako.

Baiona, urrean dagoalako, ona izan da Bizkai'ko burdina eroan eta banatzeko. Ortik joan zan Ingalterra'ra. Gaiñera uri onetara etorten zan Naparroa'ko burdina be, Auñamendi-gaiñetik. Badakigu gure burdina Baiona'tik legorrez Bearne'ra saltzen zana (XIV gizaldian), eta aldik Normandia'ra be bai.

Bordele'k ez eukan artu-emon aundirik gugaz arlo onetan. La Rochelle'k oster bai, Bilbao'ik eta Aviles'etik croatan eban.

FLANDES

Europa'n burdinerik geien erosten euskuna Flandes zan, batez be Brujas eta Anberes. Uri oneitan langintza aundia egoan eta asko bear eben eta beste leku batzutara saldu be egiten eben, edo laterriak alkarregaz asarre ziralako eta merkeagoa zalako.

XIV eta XV gizealdian agiri askok aitatzen dauz Brujas en diran saltzaileak, gero Anberes'koak. 1.344n. urtean Bilbao'tarrak 150.000 libra burdina saldu ebazan.

INGLATERRA

Ez Flandes eta Normandia'ra saltzen zan beste, España'ko erregea eta Ingalterra'koa asarre zirala, baiña bai Eskozia'ra esaterako urte orretan 42 itxas-ontzitan 700.000 libra edo 300 tone eldu ziran.

Bristol eta Baiona'ko kaien artean artu-emon aundiak izan ziran eta Bizkai'ko kaiak be ba-eukezan artu-emonak. Southampton'era 1429 eta 1.430n. urteetan Bilbao'tik, Baiona'tik eta Flandet'etik 451 tone burdina eldu ziran. Ondarroa'ko Pedro'k eroian Bilbao (Bylwabe)'ko Santa Maria ontziak, uztaillaren 26an, 4 tone burdin, 14 mila untze croan ebazan eta iraillean Deba'ko Magdalena ontziak untzeak eta tone ta lauren burdin.

Labur esateko, Euskalerriko burdina XIII ta XIV gizaldietan Atlantikoan diran kaietara eta Mantxa'ra eldu zan, baita ipar- itxasotik Brujas, Anberes eta Zelandia'ko kaietara eta Iglaterrako egoaldean diran kaietara ta Irlanda'koetara.

Lurrarte-Itxasoaren inguru osoan be ibilli zan Bizkai'ko burdina.

OGEIGARREN ILLEBETEGARRENEAN TXALA



Urtebieta Baserria.

Galdakaoko Bittor Askagorta bertsolariak egiñeko bertso parpeletatik, ogeigarren illabetean beintxa batek egiñeko txal bat zala ta, orain urte asko, Bengoetxe auzuneko Tomas Garai jaunak bertso atal bazuk konta eustazan, ta geroago Usabo baserriko Maria Zelaiak baita Anastasio bertsolarien alaba Benardak eta oraintsuago beste alaba Maria Teresak be kontau eustazan Gertakizuna Urtebieta baserrian gertaukoa da. Esanekoengadik dakigu Emeteri eta Antoni Asua tar aistek Andres eta Anastasio Larrea tar anaiekaz eskondu zirala, eta orrelan Karlos Asua jaunagaz koñetu biurtu.

Anastasio bertsolarie be bazan eta, Karlos/ere malla ortan zebillen.

Gertakizunaren oñarria onela asten da. Edonork zekorragana bei bat, beintxa bat eroan, da gero beien Ermandadara bota ta Errematako beintxea zan lez, Andres Larreak erosi. Baña beintxa aren txala egiteko denporea etorri ta beia antza artu barik zegoenez antzue zalata ernari esan lez geratu Andreseri Karlos bere koñetuek erosi ta onek beia beste ganadu batzukaz basora bota, eta...(?) zekorragana eroanekotik ogeigarren illabetean Urtebietako baserrian, 1925 ganen urtean beia txala egiten pareu.

Geube zan eta urte areitan eta geroago ere baserri eta etze askotan argi elektririkurik ezegoan ta bein ilundu ezkerorren orde kurtzulu argi, kandela argi edo ta geroago ere karburu argia ere erabilten ziran. Gau artan ba beiri txala atarazoten Karlos eta Andres, koñetuek, laguntzen ta Antoni kurtzulu antzera argi egiten.

Txal barri ori zekorragana eroan da ordutik ogeigarren illabetean jaio zala ta Galdakaoko buztarri egille bat Idelfonso

Galdakaoko frontoia alboko ormea botata, baña frontoiagaz parean probalekua zegoen, ta gaur egun frontoi barri bat egiteko izanarren, probalekuko arriak oraindikan ere argazkian ikusten dira.



Txalari 1925 garren urtean egineko husterri bakarra.

Urtau (Hurtado) jaunari deitu ta arek buztarri bakar bat txalarentzat egin eban ede, kate ta guzti ta txalari buruan ipiñi ta Galdakaoko Udaletxe ondoko idi proba lekura, frontoi parera eroan, txalari buruan adar aundi eder bi ere/buru ganean jarrita. Yente asko izan zan kasu ori ikusten, ta probaleku/orretan kateak idi probako arriari lotu orduan, koñetu bata txal aurretik eta bestea atze aldetik pareu, onek arriari goatuta, eta inderrean proba arria narraz dabe txalak eta bi koñetuek untzeren batzuk egin zitezuan.

Urtau buztarri egilleak buztarri bakar, baita beintzako busterrriak eta andigoak idientzat egiten zituzen, busterrigeille zan da.

Bertso paperak ezin izan dodaz aurkitu baña emen era batera edo bestera gertaera aren papeletako bertso atal batzuk. Nik onela artu ninduzan.

Maria Zelaia gandik: Karlos eta Emeteri dabixela larri, txalari ifinten sapa ta buztarri.

Benarda eta aistea gandik: Komedi tokea dok bei baltxu onena, ogei illabeteko txala egin dauena. Edozer diñotsola bere emazteari, beiek txala ein bear dosku ta eutsi argi ori.

Beie txala eiten, ta Antoni kurtzulutzet argieri eusten, eta koñetuek beieri laguntzen.

Tomas Garaik, Bittor Askagortaren bertso papeletako atal batzuk onelan esan eustazan:

Bittor Askagorta neronen graziya, bertso barri batzuek jarritzera noa. Mille bederatzireun ta ogeitabostgarrena

Anastasio ta Karlos larri dabixena. Anastasio ta Karlos bertsolari onak laster lotuko dira mutil panparroiak. Oneik atara deurie usedio barria txal jaio barriari eiten buztarria. Urtau (Hurtado) buztarri giña abixeu genduan, txalari neurria artzeko buran. (Nik, Galdakaoko gertakizun au lau esan lengandik neronek artuko modura opatzen dot).

JOSE MARIANO BARRENETXEA

APAIZ, LEKAIDE-LEKAIME ABERTZALEAI OMENA

Euskerazaintzako batzarrean aipatu neban, gure Apaiz, Lekaide/lekaime abertzaleari omenaldi berezi-bat egin bear jakiela, Erriari eurak egindako jakiturizko ezkeintza gaitik; bai, aurrekoagaitik ere, baina batez-be Sabino'ren eredia artu ebanai Erri-Askatasunaren egarría asetzeko; Eurak izan diralako "aldi-artu" dabenak, Euskal-indarrak jakituriaren bidetik eroateko arduradun nagusiak izanda, eta lan-orretan: "Maisu-langille izan eta diralako Euskalerria'ren askatasuna bideratzeko".

Lizarran, Latxaga'ren etxetik, Jurramendi, Iratxe'ko Lekaidetxea bai Monjardin ere, aurrez-aurre begi-ikuspegian eukinda idazten dot gogo-eskari au. Eurari begira eta Euskalerriko edestia gogoratzuz, nai-ta nai-ez arlo aundi-baten irudimena ikusten dalako. Berak esaten dauan lez, Iratxe'ko lekaide-txea ikusiz, beti gogoratzen dala 1936'an Uztaila'ren 18'ko besperatan, an egon ziran gogamenak burutakizun txarrakin Mola eta beste batzuen artean Espaina'ko agintea artuz, Katalunya, Galitzi eta Euskalerria'ren Nortasunak galerazi edo ezeztatzeko.

Gure etxean, Apaiz, Lekaide/Lekaimeak izan diralako, eramakizun aundiena euki dabenak, ez-jakinaren edo jakinen gainean arteko aokaldiaren aurka, edo Euskal-izaeraren egiari, menperatzail-gaitzeslearen erizpenak, euren artean jokotuta ezeztatu egin dabezanak. Nai gure artean beste dardapozoitzu bat euren aurka agertu, guk ao-zabalik irun-tsi genduna (MARX) gugan eta gurekin ezer ikusirik ez daukana, gure askatasunezko bideak, orrek gauzak berez aurkitzen dabelako zuzen eta erri-agintearen eritxiz. Nok sartutakoak diran, iñork ez daki, baina argi ikusten diranak, etsai baten lanak bakarrik izan leikezanak. Dana dala, guk bada-ezbadan irun-tsi, eta or gure gaurko egoera larria, gure arteko aitu-ezinaz, elburu ezberdiñak gure artean kokatu diralako. Apaiz, Lekaide/Lekaime Abertzaleak ez ziran jausi sare ortan, geienak jausi diran lez eta orrek bakarrik oparitxo-bat bear dau. Konturatu ziran, Ludi onen borroka bakarra, berezitasunaren aurka joatea dala, sasi-jainkoak gai ontan izateko ? Ez

dakit!, baiña euren elburua ABERRIA izan dala, bai! Sinismen osoarekin jokatu egin dabelako JAINKOA rengana igoteko; eta nik geiago esango neuke: "LUDI ONEN ARDURA BAKARRA DALAKO JAINKOAREN AURREAN GARBI AGERTZEA".

Bestela, begitu Euskera'ren berbiztasunari buruz ere zor dautsaguna, arlo nagusienean beintzat.

Zer esanik ez, etsaiak ibili diran jainkotasunaren arloan guk Iparra galdu degun alegiñetan, Euskalerraren ez-izatea lortu gurean EURAK IZATEKO!. Emen arlo onetan bakarrik egin daben ikerketak edestiko bidetik, ziurtasunezko bidea irabazi-ta, aurka egiteko arrazoia bere lekuan kokatu daiten. Eta ez lan gutxiago apaiz, lekaide/lekaime eleiz-menperatzaile'en alde dagozan eta egon direnai aurka egi-terakoan, euki daben eta daukien ulermen-zeatz aundiko jakituri'en arduradunagaz.

Ez gaitzezan aaztu:

- * Izkillatutako 16 Apaiza/Lekaide'rekin
- * Espetxetan sartutako.. 211 Apaiz/lekaidekaz
- * Erbesteratutako.....500 Apaiz/lekaidekaz
- * Kargu-gabetuakaz.....9
- * Jazarkunderatuak.....11
- * Espetxeetan eta erbestean il-dakoak.... 8

Eta menperatzaile'en alde egon ziran Gotzaiñakin, euki ebazan borroka, gogorak, auek ez ebalako on-artzen gure Erriaren berezitasunezko izkuntza, izaera eta gutxiago askatasuna Erri-Berezi lez. "-JAINKOAK AGINDUTAKOEN BEREN BEREZITASUNEZKO LEGEPEKOAK IZATEAGAITIK".

Beste aldetik, Euskalerrian euki daben adimendua, Erria ulermenduz JAINKOA'ren askatasunezko agindua betzeko ordezkartzaren bidetik. Besterik ez dauelako, eta ezin dalako askatasunik lortu NORTASUNIK gabe, gizon/emakumeak diralako orren ordezeko arduradun jaun-bakarrak. Eta bidé

orrek bakarrik eroaten gaitulako berezitasunaren askatasunera, bide bakarra dalako ordezkariatzako bizi onetan.

Zergaitik omenaldi au?: Gure etxea jasteko daukaguzan edertasun onenakaz. Beti bizi gaituzan etxe-ko Nortasunaren ikus-begian, aurrerakoien egiña omenduz; datozen bearrari, beti euki ta kokatu daitez-kan etxe-ko berotasunean, bakoitzaren berezitasunez-ko zertzeladak alan beartzen gaitulako.

Ludi onen giza, bakoitzak bere berezitasuna dauka, bakotzak beren Nortasuna daukolako, eta burutapen (concepto) ori, bear daben senitarte mailan ezarri ezker, or ! Ludi onen arrazoi berezia. Nik, orrez gain esango neuke: "ordezko LOTSAGIZUNA tartekatu ezker, or bake ta JAINKOA'ri begiratzea". Baiña Onaindia'tar Santi gaur bizi bazan eta Olazar'tar Martin ek laster esango eben Geldi or!, beti agertzen dalako sasi-jainkoaren-bat. "Giza'ren pekatuak atzo, gaur ta biar, beti izan dira berdiñak, eta aurrerantzean ere bardiñak izango diralako".

Euskalerraren etxe-ko seme/alaben arteko ardura-dunak asko dira (gaiztoak ere bai), merezimendu aundia daukienak bakotxa beren maillan, bana danez gain: Apaiz- Lekaide -Lekaime Abertzaleak dira

nere ustez. Euren jakituriagaz jakin dabelako Euskal-berezitasunezko gudan, ze arlotan kokatuta egon bear diran. Eta benetan sinisten dot, euren alegin guztiaz jokatu dabela, JAINKOA'ri ezkeintzeko Bere Aginduaren Ordea.

Nire aurrean daukat egiten nabillen lantxo-bat, gure gudan, Euskal Gudariizkillatzeko zirenen azke-neko itzak edo mezuak itxi ebazanak edozein pape-retan idatzita: "GURI EZ DAUSKUE IRAKATSI ESPAINA'ri NARDA EGITEN EDO GORROTA-TZEN; GURI, EUSKADI MAITATZEN IRAKATSI DAUSKUE eta EUSKADITIK JAINKOAREN-GANA".

Onen gora-beragaitik, gure gazteak ez dakie ezertxo be. Orregaitik konturatu bear gara, Euskal BEROTASUNAZ besarkatu egin bear dogula gure EUSKALERRIA, gaztediren maitasuna bizkortzeko eta Nortasuna Zendotzeko.

Orregaitik omenaldia Abertzaletasunari APAIZ -LEKAIDE- LEKAIME gandik asita.

ATUTXA'tar PAUL
ZORNOTZAN 2.000'an UZTAILLA' ko 26'an

ZUGAZTIAK ERRIAK BAIÑO
LENAGOKOAK DIRA BASAMORTUAK
ERRIEN OSTEAN DATOZ; ZUGAZTIAK
GALTZEA GIZONENTZAK ZIGORRA DA.

Chateaubriand



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

GERNIKA'KO BATZAR-ETXEA (I) GARRANTZIA

Bizkaia'n doguzan oroietxe guztien artean garrantzi-tsuena Gernika'ko Batzar-Etxea dogu, gauzea edesti-eldetik begiratu ezker. Ertia begiratu ezker asko dagoz obeak eta antxiñakotasunari begiratu ezker be bai, baiña gure Erria nondik nora ibilli dan jakin nai ba'dogu, edestia begiratu nai ba'dogu, Etxe au dogu lekukorik onena, "Zer" onetan agertuko diran sei-bat idazkitan ikusiko dogun lez. Bizkaitarren biotza dogu etxe au edo jaunerriarren ama-etxea. Eta ori baieztatzen dabe batzarren atxiñekotasunak, batzarretan legeak egin ebezenen zuzentasunak da zintzotasunak. Or agertuko jaku gaur egun be Bizkaia'k zer dauan bere-berea.

Batzar-Etxea esatea Bizkai osoa esatea da. Etxe onetan agertzen dana beti da bizkaitartasuna, leiñargitasuna eta garbitasuna.

Gernika uri lez 1.366n.urtean irasj eben baiña orduan be ezaguna zan Gernika Zarra lurraldea eta lurralde onetan ariztia ta baseleiza bat. Arizti aretatik geratzen dana da Gernika'ko zugatza eta baseleizea egon zan lekuan daukagu gaur Zin-Eleizea, Andra Mari Zarrarena deritxona. Auxe da Batzar-Etxea.

Antxiña baten bizkaitarren batzarrak toki askotan egiten ziran, baina astiro-astiro sartu zan beti batzarrak Gernika'ko zugazpean egiteko oiturea. Orregaitik zugatz au mundu guztjan da ezagutua ta goratua, abestua ta gurtua, eta Iparragire abeslari txalogarriak diñoan lez, "eman da zabaltzazu munduan frutua". Zugatzen artean Zugatza» da Gernika'koa.

Gaurko Batzar-Etxe au 1.826'tik 1.836'ra egiña da, orregeitik Klasiku-Barri tankerakoa, tankera onek eskatzen dauan lez apaingarri gitxikoa, latza, aundikeri-bakoa.

Egin zanean sarrera ta orma gurena, nagusia, zugatzera begira egoan, baiña gure aldi onetan etxe onetara sartzeko ez da artzen ate ori, lenago eleizara sartzeko atea eta etxe osoa zanaren atzeko atetik baiño.

Etxegintzan erabili zan oreka ez da agertzen etxe onetan 1.833n. urtean etxegintza itzi egin bear izan zan, karlatarren gudak sortu ziralako eta etxea amaitu barik ikusten zan.

Lenengo, agiritegia dana egin eben, 1.826n.urtean, urrengo urtean zin-eleizea eta sarrerako ibilbide bi eta etxe bi onein artean gaur museoa da be-barrua geratzen zan.

Gaur batzar-Etxeak dituan tokiak oneik dira: Andra Mari Zarraren zin-eleizea, zugatzaren lekua ta zugazpean zin-tokia ta zugatz zarra agiritegiak, Museoa, Zuzendaritza ta zaingo-gelak.

Batzar-Etxeak ibiltari ta ikusle asko erakarten dauz beragana Bizkaia'n. Goikoak naiz beekoak diran notiñak ugari etorten dira etxe au ikustera: ugari, arduratsu, jakin-nai aundiagaz eta biotz beroagaz.

Mundu guztian da esagutua toki au eta edestiz beterik dagoan ezker, beragana ekarten dauz ibiltariak, billatzailleak eta Jauneriak beti izan dauan zintzotasuna ta jokabide zuzena zein izan dan jakin nai daben guztiak.

Beneteko jakin-naia daukanak, egia dan lez jakin nai dauanak, emen agi ritegi aberatsa aurkituko dau eta edestia ikutu egiteko aukerea izango dau.

Barru-miña daukana, nuntzebarri dana ainbeste milla ikertzaille pozik eta alaj joaten dira aurkitu daben ezagupena aurkitu dabelako. Izan be Bizkaia ta Euskalerrria zer izan diran jakin nai dauanak lenengo ta bein kontuan euki bear dauana, Gernika'ko Batzar-Etxea da.

Gaur gure erri-bizitzak arazo aundiak daukaz. Kampoetik etorri eta bertokotu barik dagozenak asko dira. Ez dabe ezagutzen gure edestia. Errigintzarako gure artean izlari diran alderdi batzuk be ez, ez dakie gure erria zer dan, nondik datorren eta nora doan. Betoz Gernika'ra eta aurkitu begie erriaren oiñarria eta jakin begie beste Euskal-lurralde guztietan be, jokabidea antzekoa izan dala: Gogoratu Gipuzkoa'ko Batzarrak, Araba'ko kuadrillak eta Arriaga'ko kofradia, Nafarroa'ko korteen oiñarria, Uztaritz eta Maule'ko batzarrak. Eldu jaku Lurralde guztiok alkartzeko ordua, ori da Euskalerrria, gure erria.

OLAZAR'tar Martin'ek

Oarra: Emen eta urrengo idaz-lanetan agertzen diran jakingarriak Bizkai'ko Aurrezki-Kutzak argitaratu eban "Colección de Temas Vascos" etik artuak dira Francisco Sesmero Idaslezala (1975) Batzutan itzuli egiten dot, beste batzutan zerbait gaiñeratu eta iñoz eritxiak agertu.




EUSKALDUN BARRIENTZAT



Marrazki onen artean, bi dagoz bardiñak. Zeintzuk dira?

8-Z
nuad iñz v


KARMELE



EUSKERAZALEAK

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO

Akelarre. Nestor Basterretxea



BAT GATUZ EUSKAL KULTUREAGAZ

Erakundearen konpromezutzat
artuten dogu, geure erri onen
arimeagaz bat egitea. Orrexegaitik
lagunduten deutsegu gogo osoz,
geure nortasun berezia indartuten
deuskuen kultur adierazpenai.

Eta aparteko arreta iminten
deutsagu, kultur adierazpenen
artean, gure ezaugarririk gorena
dan euskerearen garapenari.

EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa